

berria.info | Papereko edizioa

Plaza

bilatu...
Bilatu

[Hasiera](#)
[BerriaTB](#)
[Parte Hartu](#)
[Blogak](#)
[Bereziak](#)
[Kanalak](#)
[Zuzenekoak](#)

[Paperekoa](#)
[Iragarki laburrak](#)
[Hitza](#)

Harian
|
Iritzia
|
Kirola
|
Agenda
|
Plaza

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Plaza](#)

2009-10-18

Distantziak distantzia

MIKEL AYERBE

= M unichen jaio eta Berlinen bizi den Raul Zelik idazleak Petra Elser-ekin batera Joseba Sarrionandiaren *Lagun izoztua* nobela itzuli zuen alemanera duela bi urte. Urte berean argitaratu zuen *Der bewaffnete Freund* nobela, oraintsu Edorta Matauko itzultzaileari esker *Lagun armatua* izenburupean kaleratu dena.

= Alex protagonista gaztetako oporraldiak pasatzen zituen X hirira (Bilbora) itzuli da. Liburuaren aurreneko zatian, protagonistak azkenaldian dituen gorabeheren panoramika biltzen da: Rabeerekin duen harreman berriko lehenengo pitzadurak, Hanna alabaren amarekin duen erlazio gatazkatsua eta ondorioz, alabarekiko duen urruntasun sensazioa... Gertakari guzti hauen aurrean Alexek duen eruduntasun eta utzikeria konplexuak unibertsitatego ikerketa batean murgildu eta Bilbora eramango dute. Liburuko bigarren zatian, gaztetan lagun izandako Zubietari laguntzeko eskaria jasoko du Alexek. Sarrionandiari kartzelatik ihes egiten lagundu zionetik, sasia bizi izan da Zubieta, baina orain Espainia hegoaldera eramango duen norbait behar du. Zalantza politiko eta etikoak baztertuz, Alexek proposamena onartu eta ezustekoek ere euren bidea egingo duten *roadmovie* batean barneratuko dira bi lagunak.

= Asko hitz egin da gatazkaz idazterakoan distantziak duen garrantziaz, distantzia bai denboran eta baita espazioan ere. Modu horretan, Alemaniatik gure gatazkaz idatzi du Zelik, ziurrenik hemengo idazle batek egingo ez lukeen moduan gainera. Alde batetik, gatazkaren inguruko ikuspegi ezkeriarra -nahiz eta ikuspegi kritikoa ere bere lekua izan- modu oso ausartean eta gordinean aurkezten duelako. Bestetik, euskal gatazkaren gaia aleman irakurleei gerturatzeko ahaleginean gure egoera petralaren inguruko gertakari jakinak bata bestearen atzetik pilatzen direlako -auziak ezer gutxi dakien bati eginiko laburpen gisara-. Dena den, aipatu behar da Zelik ez dela gatazkaren eremura hurbildu gaiak izan dezakeen kutsu exotikoa besterik gabe exportatzeko intentzioz -besteak beste, idazleak aspaldidanik duelako lotura Euskal Herriarekin- eta alde horretatik, gaiaren inguruko trataera jakin bat biltzen da nobelan. Aztertu beharko da, liburu hau inoiz gaztelerara itzultzen bada izango duen harrera.

= Horrela, azken urteetan gure gizartea kolpatu duten hainbat gertaeren inbentario hautatua egiten du Zelik gatazka bere gisara kontatzeko, izua Alex protagonistaren hezurretaraino barneratu eta irakurleari galdera jakinak planteatuz. Hori bai, kontakizuna azken su-etenaren garaian kokatzen den neurrian, denboran eginiko distantziak ere gertakariak narratu edo ulertzeko modua ere alda dezakeela deritzot.

= Nobelaren ezaugarrietara itzuliz, kontaktak sarritan bereganatzen duen kutsu epikoak ere apur bat atzera botarazi nauela esan behar -Alexek Zubieta laguntzeko ematen duen arrazoi nagusia horren lekuko-. Bestetik, nobelako aurreneko zatia luzeegia begitandu zait, amaieran guztiak esanahi zehatz bat bereganatu dezan idazleak Alexen karakterizazio psikologikoa gehiegi landu nahi izan balu bezala.

= Kontrara, nobelako bigarren atalean Zelik bete-betean asmatu duela deritzot. Duela bi urte eginiko elkarrizketa batean «izuan barrena eginiko bidaia» baten kontakizuna egin nahi izan zuela adierazi baitzuen idazleak eta kontakizuna puzteko gatazkak ahalbidetu ditzakeen piroteknia osagairik gabe: tiroketak, polizia pertsekuzioak..., protagonistaren barne bidaia eta izua transmititzen asmatzen duelako.

= Distantziak distantzia, fikzioa eta lekukotza -zein salaketa- elkarrekin nahasten diren kontakizun honetan ni neu *Lagun armatua*-ren alderdi fikzionalenak erakarri nauela esan behar.

'LAGUN ARMATUA'

Egilea: Raul Zelik.

Argitaletxea: Txalaparta.

Itzultzailea: Edorta Matauko.

Albisterik...

IRAKURRIENAK
Bozkatuenak
Bidalienak

- 1 Erkizia: "Konfrontazio armatuaren arotik, aro politikora pasatu nahi dugu"
- 2 Aitor Elizaran eta Oihana San Vicente ustezko etakideen etbeak miatu dituzte Donostian, Agurainen eta Karnacen
- 3 'Egunkaria libre!' eskatuko dute idazleek, ostiralean
- 4 U2 taldeak Youtube bidez zuzenean eta doan eskainiko du kontzertua
- 5 Gizon bat atxilotu dute Getxon, bikotekide ohia jotzea egotzita

http://paperekoa.berria.info/plaza/2009-10-18/043/013/Distantziak_distantzia.htm

Página 1 de 3